

## Non ezarri ?

Hainbat daturen azterketak hasiberriion arkitektura-bulegoen kokapen egokiena iradoki dezake.



Unai Fernandez de Betoño

*Gako-hitzak:*

*Estatistika*


*Arkitekto kopurua herrialdeko*

Hainbat galdera ditu buruan arkitekturako karrera bukatu berri duen gazteak. Zer egin, norekin, nola... Zalantzon artean garrantzitsuenetakoa non izan daiteke. Alegia, non ezarri, kontuan izanda arkitekturaren ogibidea ez dela esaten zaion bezain globala eta deserrotua, toki jakin batean garatzen diren kontaktuen sarearekin erabat erlazionatuta baitago azken finean. Eta bezeroen balizko zerrenda hori hiri zehatz bati, eskualde bati, edo gehienez herrialde bati atxiki zaio eskuarki. Arazoa, hortaz, agerikoa da. Zein izan daiteke arkitektoaren interesetarako lekurik egokiena haren bulegoa ezartzeko, haren harremanak sustraitzeko?


Bistakoa ez bada ere, arkitektoa ez da uste den bezain mugikorra eta nomada. Hainbat urte tako —sei, zazpi, zortzi, hamar beharbada— ikasketak burutzeko haren tokia arkitekturako eskolaren kokagunearen arabera erabaki duenez arki-

tektogaiak, ez da batere arraroa inertiaren legearen poderioz, besteak beste, hiri berdinean bizitzen eta lan egiten jarraitzea karrera bukatu ostean. Azken batean, Interneteko sarea gorabehera, beharrak bizilekuari heltzen dio, eta alderantziz, jakina. Horren guztiaren ondorioz, arkitektoen kopurua nabarmenki handiagoa da arkitekturako eskolak dituzten hirietan eta herrialdeetan. Bestela esanda, arkitekturako eskolak barne hartzen dituzten hiriek eta herrialdeek lehia handiagoa dakarte arkitektoen artean, hots, zailagoa da haietan enkarguak erdiestea. Horretaz guztiaz jabetzeak arestian azalduetako galderari —non ezarri— erantzuten lagundu diezaiokie arkitekto hasiberriari.


Ziurtatutako hipotesia frogatzea baino ez da geratzen. Horretarako, aipatutako baieztapen kualitatiboa egiaztatzeko, estatistikak eskaintzen dizkigun kantitateak erabil eta aldera daitezke:



Frantziar administraziopeko Euskal Herriko herrialdeen arkitektoen kopuru zehatza jakitea zaila da, Conseil National de l'Ordre des Architectes delakoak bakarrik zehazten baitu Akitaniako eskualde osoko tituludunen zerrenda 1.471 bat arkitekto osatzen zutela 2007ko abenduaren 31n. Bestela, espainiar administraziopeko Euskal Herriko herrialdeen artean dagoen ezberdintasuna nabaria da, alegia, Gipuzkoan zein Nafarroa Garaian, hau da, arkitekturako eskolak hartzen dituzten herrialdeetan, biztanleko dagoen arkitektoen kopurua ohargarriki handiagoa da. Alderaketa erraz horren emaitzak ikusita,



Frantziako datuek eskualde askoz ere handiagoak hartzen dituztenez, espainiar estatuko probintzietako datuekin ez dira zuzenki alderagarriak. Hala ere, Espainiar estatuan biztanleko arkitekto gehiago daudela argi iradokitzen dute, azken urteetako bertako eraikuntzaren jarduera frenetikoaren erakusgarri. Madrilek lehia sutuena eskeiniko dio arkitekto hasiberriari –eta ez soilik berari, bistan da–, eta horrek hasierako hipotesia



Horrenbestez, argi geratu da espainiar estatuan Madrilen dagoela lehiarik latzena. Bertako arkitektoen artean ematen den lehia Cuencakoa 3,26 aldiz handiagoa dela esan daiteke, harrigarria bada ere. Alderaketa Euskal Herriko herrialdeetara ekarriz, Nafarroa Garaiko norgehiagoka Cuencakoa baino 2,81 aldiz handiagoa da, eta Gipuzkoakoa, berriz, Cuencakoa 2,46 aldiz gogorragoa. Proporzioak zinez esanguratsuak dira.

norbaiti otu al dakiok bi herrialde hauetan arkitektura-bulegoa irekitzea? Nafarroa Garaian dagoen lehia Arabakoa 1,64 aldiz handiagoa da! Balizko enkarguen ekuazioan aldagai gehiago sartu beharra dagoela argi dago –arkitekto edo arkitektoen talde bakar batek lan handia bereganatu baitezake–, baina emandako datuak ez dira baztertzekoak.

Ikerketa kuantitatiboa Espainia eta Herrialde Katalanetara zein Frantziara zabal dezagun, probintzia eta eskualde nagusiak alderatuz:

egiaztatu baino ez du egiten, bertan pilotzen direlako arkitekturako hamaika eskola, bai publikoak, bai pribatuak.

Azken alderatze-taula osa daiteke, oraingoan Espainiako eta Galiziako arkitekturako eskolarik gabeko probintzietako datuekin, Frantziako eskualdeak bazter batera utzita, zehaztasun gehiago lortze aldera:

Ohi bezala, kantitatearen aldaketek kalitatearen mudantzak dakartzatela erakutsi dute zenbaki eta proportzioek. Arkitekto hasiberriek ondorio nabarmena jaso beharko lukete honetatik guztiatik, haien kokagunea ondo erabakitzeko beharrezkoa den beta hartuz. Azken finean, batek daki, proiektuen enkarguak jasotzeko zailtasunak ikusita, beharbada ez litzateke hain ideia txarra tramankulu guztiak Cuencara eramatea. ✎